



Antxiñako fotografixia

Kale Zaharreko despedidia



Ezkundu aurreko despedidak ez dira atzo goizekuak. Gaur egunian be egitten dira ugari eta zaratatsu askuak batzuetan. Hil honetako argazkixan agerketan diran emakumiak gerra aurtxuan alkatu ziran Maria **Arriaranen** soltera-despedidarako. Maria, Don Ziriako abadiaren arrebia, Kale Zaharrian bizi zan eta Garaiñenian ebillen lanian. Horregatik fotografixa honetako kuadrillan dagozen neskarik gehixenak Kale Zahar/Kanpantxo ingurukuak ziran, edota fabrika haretako langilliak.

Goixeneko ilaran: Genoveva **Aranburu**, garai haretan Kale Zaharrian bizi zana; X. X.; Emili **Intxausti**, Kanpantxokua; Iñazi **Astigarraga**, Faustino Erostarberen andria.

Bigarren ilaran zutik: Maritxu **Erostarbe**, Iñazi Astigarragaren alabia; Klementina **Ugarte**, Emeterena; Pepita **Iturrospe**, Nikomedesena; Juanita **Txintxurreta**, Kanpiazelaiakua; Modesta **Iturrospe**, Pepitaren ahizpia; Sabina **Letamendi**, Sarrikuena; Andresa **Arriaran**, Kale Zaharrekoa eta Mariaren ahizpia; Martzelina **Lezeta**, antzuolarra, sasue haretan Santzenian neska me eguana eta gero Jargikora ezkondu zana; Juli **Urrutia**, estaziñokua; Meteri **Zabaleta**, Altamirakua; Emili **Aberasturi**, Zezpaleña; Rufina **Aiastui**, Kurtzekua; Maixabel **Galdos**, Erlerena; eta Eujeni **Erostarbe**, Maritxuren ahizpia.

Hirugarren ilaran jarritta: Pilar **Idigoras**, Harrijoileneakua; Anastasi **Urteaga**, San Anton kaleakua; Iñazi **Anduaga**, Kipuexekua; Maria **Arriaran**, nobixia; Karmen **Lizarralde**, Gregorio *Kaporen* arrebia; Leandra **Elortza**, San Juan kaleko Txinpartaneakua; Juli **Elortza**, Kurpideakua.

Behoko ilaran erdi-etzindda: Gloria **Oiartzabal**, Santa Mariñakua; Kontxes **Zabaleta**, Burdintxuena; Mikela **Etxaniz**, Jose Molineroren andria; Felisa **Mendizabal**, Kale Zaharrekoa; Maria Dolores **Gorostidi**, Kanpantxokua; Rosa **Bailo**, kuartelekua.

J. E.

Fotografixa Gloria Oiartzabalek itxittakua da. Argibidiak, berriz, Gloriak berak, Pilar Barrenak, Genoveva Aranburuk, Arantxa Oñatek eta Rafael Errastik emun doskue. Milla esker danoriri!

M. AGVIRREVRRETA OKINDEGIA

Berezano auzoa, 21
Tfnoak: 78 23 45 / 78 22 54
OÑATI

ALOÑA

Autoeskola



Ramon Irizar, 3 behea
Tfnoa: 78 24 91
OÑATI